

KONTROL MOZIOA

ERRONDOKO SEGURTASUN ETA EKIPAMENDU FALTA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko urriko Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urtarrilaren 21ean, Errondo Gainako Auzo Elkarteak Errondo auzoko pertsona helduentzako eta haurrentzako gune estali baten eskaera erregistratu zuen. Ez du erantzunik jaso, ordea.

Horren aurrean, 2016ko maiatzaren 30ean, berriro ere, Errondo Gainako Bizilagunen Elkarteak auzoaren gabeziak eta segurtasun falta jasotzen dituen idatzia erregistratu zuen. Hain zuzen ere, Aizkolene bideko frontoi eta espazioaren zainzak utzi zirenetik, espazio horretan eta auzoan ematen ari diren istiluak areagotzen ari direla adierazi eta babesa eskatzen zuten idatzi hartan.

Aizkolene bideko frontoia eta haren ingurua Kutxarenak dira eta auzo elkarteak erabiltzen zituen; urtero berritzen zitzaion lagapen akordio baten bitartez. Halaber, jakinarazi zitzaigunez, elkartearen erabilpen eta mantenimendurako finantzazio eskaeraren aurrean edota lagapena indartzearen aldeko proposamenaren aurrean, ezezkoa jaso eta elkarteak giltzak entregatzea erabaki du.

Geroztik, aipatutako zainza utzi denetik, txikizioak egin dira eremu horretan eta istiluak egon dira auzoan, auzo elkarteak esandakoaren arabera.

2016ko ekaineko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, gai honen inguruan galdetu genuenean, Kutxaren espazio horri erabilpena emateari utzi zaionetik Udaltzaingoaren esku hartzeak areagotu diela baieztatu zitzaigun eta Kutxarekin auzoaren intereserako litzatekeen erabilpena kudeatzearen aldeko jarrera adierazi zitzaigun.

2016ko urriko Pertsonen Zerbitzu Batzordean, gaiaren aurrerapenaz eta bizilagunek izan duten erantzun faltaz interpelatu genuenean, Kutxarekin kontakturik eman ez dela erantzun zitzaigun eta horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, abendura bitartean, Kutxarekin harremanetan jar dadin eta Aizkolene bideko frontoi eta eremua auzoak dituen beharrak asetzeko erabiltzeko bidea lantzen has dadin, Errondo Gainako Bizilagunen Elkartea emandako pausoen inguruan informatuz.

Donostian, 2016ko urriaren 21ean

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia